

# ADIMEN ANITZAK - Haur hezkuntza -Lehen hezkuntza 3.maila





## Egonaldia Baratzen, Ulermenerako Heziketa

Adimen anitzen bidez, umeei, ikaskuntza esanguratsua eta **ulermenerako heziketa** eskaini

nahi diegu.

Egonaldi osoan berez , adimen batzuk garatzen ditugu:

- 1.- Pertsonaren baitako adimena, autonomia lantzearen bidez (botak, arropa jantzi...jantokian)
- 2.- Pertsona arteko adimena, elkar bizitzen daude eta elkar lagundu behar dira, lan kooperatiboa bereziki garatu nahi dugu.
- 3.- Hizkuntzarako adimena: Eleaniztasunaren bidez, ingelera eta/edo euskera une guztietan komunikabide bezala erabiltzean.
- 4.- Adimen naturalista: Inguru naturala tresna bezala erabiltzen dugulako umeen emozioa eta arreta lortzeko. Giro honetan zentzumenen estimulazioa garatzea lortu nahi dugu: ikumena, dastamena, ikusmena, entzumena eta usainmena.

Hau jakinda, adimen guztiak nola lantzen ditugun tailer bakoitzean hurrengo azalpenetan daukazu:

**Adimen ikus-espaziala**- Egurra lehengaia bezala erabiliz zurlanketa egingo dute, konkretuki Euskal Herrian tipikoa den lore baten marrazkia.

Eskulangintzan, Naturan dauden gauzekin arte-lana egin.

**Hizkuntzarako adimena:** Animaliei buruzko hiztegia landu, deskribapenak egin, istorioak eta ipuinak asmatu, atsotitzak eta esaerak pentsatu eta esan.

**Gorputz adimena:** Arnasketa eta gorputzaren auto-kontrolaren bidez gorputz erlaxazioa landu, oreka eta gorputza jarrera mantendu, gau belan koreografia asmatu eta dantzatu.

**Adimen logiko-matematikoa:** pentsamendu deduktibo eta inductibo, neurtze sistema hamartarra, kalkuloak, geometria, dentsitatea eta probabilitatea.

**Adimen musikala:** melodía ezagun batekin eta erritmoa kontuan harturik , abestiak taldeka asmatu eta kantatu, instrumentu musikalen laguntzaz.

**Pertsonaren baitako adimena:** kontzentrazioa, erlaxazioa, beraien sentimenduetaz konturatu eta pentsatu, beraien jarrera eta umorea aztertu.

Tailer honetan, nahi izanez gero, **adimen espirituala** ere landu dezakegu: Loreetatik abiatuz, nola sortzen garen, nora goaz, zein den gure bizitzaren helburua,ea...ikusiko dute.

**Pertsona arteko adimena:** ortua talde kooperatiboetan landuko dugu eta gaubelan egindako jolasetan kolaborazioa sustatuko da.

**Adimen naturalista:** Animalia eta landare batzuen klasifikazioa ikusi, Naturan dauden soinuak, aztarnak, ea ... aztertu eta ezberdindu, gizakiak naturan daukan eragina aztertu eta ondorioak atera eta azkenik, animalia eta landareen arteko harreman ezberdinak behatu.